

Etxean kontu-kantari 5

Txilin-txilin

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Haurra airean balantzaka ibiliko dugu eta abestiaren amaieran airera botako dugu.

Handitzen den heinean, balantzak egingo dira heldu batek haurra hanketatik eta beste batek besoetatik heltzen duen bitartean.

Txilin-txilin Manex
aitajauna non da?
Asto txiki batekin,
errotara joan da.

Txalo-Txalo Txalo Txin

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txaloka aritzeko jolasa. “Malenen belarran” esaten denean, aldiro gorputz-atala aldatuz joango gara eta amaieran esandako atalean kili-kiliak egingo dizkiogu haurrari.

Txalo-txalo txalotxin
hator etxera Mattin,
taloa xehetu kabarran
Malenen belarran.

Errotariaren ondasunak

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Jakin nahi al duzue zer egin zion katu batek jauregi bateko jaunari? Bada, entzun ipuintxo hau!

Makarron makarron txufa

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Gero aipatuko dugun jolasa egin aurretik, bulea nor izango den izendatzeko zotz egiteko kantu hau abestu dezakezue.

Makarron makarron txufa!
Txiribiribi maka.
Ale, ale, lepetitite
Ale, ale, lapetitite.
Arrebersekomua!

Ni ez naiz xomorroa

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Korroan jokalaria kantuan ariko dira eta haien erdian bulea egongo da, begiak estalita. Kantua bukatzean, bulea jiraraziko da: bat, bi, hiru... jokalaria bat harrapatu arte.

Ni ez naiz xomorroa
Izanagatik lau begi.
Zatoz, zatoz nirekin
Ez zoazela ihesi.
Tran la rai lai lai...

Bat, bi, hiru...kuku!